

BilboShop

B I L B O B I Z I



FUNTSEZKO ELKARTEAK





BilboShop

B I L B O B I Z I

Gure hornitzaileak

Gure plataforma teknologikoa abian jartzeko eta denboran zehar mantentzeko enpresa baten zerbitzuak erosiko ditugu; bakarrik web orrialdea eta email sistemak ezartzeko hosting-a (zerbitzaria) erosiko dugu, gure taldekide baten ezagutzaren bidez plataforma garatu eta kudeatuko dugu, beraz horretarako ez dugu beste enpresaren zerbitzurik beharko.

Gure negozioa optimizatzeko asmoz, eta kostuak murrizteko, logistika arloko zenbait enprekin aliantzak egiten saiatuko gara, bidalketen kostuak murrizteko eta horrela gure erosleei prezio txikiagoak eskaintzeko aldi berean guretzako etekin marjin handiagoa eskuratuz. Logistika arloan, Correos, UPS, Seur, eta bestelako enprekin aliantzak sortzea da gure asmoa. Baita beste mota bateko logistika metodo bat eskaintzen duen Euskal Start-Up batekin ere: Hapiick.

hapiick®

Logistika-zerbitzu berri bat da, merkataritza elektronikoari begira dagoena eta aukera ematen diona erabiltzaileari, modu eroso eta seguruan, bidalketak hurbileko hapiick kutxatila adimendun batean jasotzeko, eta gehien komeni zaion unean.

Informazio gehiago: www.hapiick.com





BilboShop

B I L B O B I Z I


Bilbo mailan, **BilbaoCentro** merkatal elkartearekin aliantza bat eratzea pentsatu dugu:



BilbaoCentro enpresa-elkartea, Abando udal-barrutiko merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzu-enpresen ordezkari da. Elkartearen helburu nagusia da, Bilbo bilbotarron nahiz bisitarien eta turistaren erosketa- eta aisia-erreferentzia izan dadila.

Informazio gehiago: www.bilbaoentro.com

Merkatal elkarte honekin aliantza bat egitea oso erabilgarria izan daiteke gure zerbitzuak Bilboko dendarien artean zabaltzeko. Berez, BilbaoCentro hiriko denda txikiak biltzen ditu, eta aukera oso ona da gure zerbitzuak eskaintzeko orduan. Nahiz eta BilbaoCentro Bilboko merkataritza txikiaren arloan aritzen den ere, ez dago gure arteko lehiarik, beraz **lehiakideak ez diren** arteko aliantza da.



www.bilboshop.es

Funtsezko elkarteak > 2. Orrialdea

Ageri diren logotipoak eta aipatzen diren markak Copyright-ez babestuta egon daitezke. Eskubide intelektual guztiak jabeen esku daude.